

geuk2022: eskoletako bisitak nola



2020an ekin genion Oñatin Nabarralderen ildoko jardunaldiak antolatzeari. Nabarraldeko sustatzaileak izan, eta bertatik jasotzen genuen ezagutza herritarren artean zabaltzeko intentzioz, hitzaldien bitartez.

Arrakastatsuak izan ziren jardunaldiak, baina jende gehiagorengana iritsi nahi genuen. Sentsazioa genuen jende multzo bera genbiltzala hitzaldietan. Eta batez ere, nagusiak ginela. Nola gazteengana iritsi?

Herriko ikastetxeetan gure historia irakasteko saiakera bat egin genuen, baina arrakastarik gabe. Kontu ekonomikoak (eskolek ordaindu beharra) izan ziren oztoporik nagusia.

2021eko jardunaldiei erakusketa gehitu genien. Bi astez egon zen kultur etxeko aretoan ikusgai, Beñi Agirrek gidatutako bi bisitarekin. Erakusketaren oinarrian Nabarraldeko aditu taldeak landutako historia dago. Usurbilgo Nafartarrak taldeak prestatu zituen hasieran panelak, eta Hernani Errotzen taldeak mapez jantzi, ondoren.

Orduan konturatu ginen erakusketarena formatu aproposa izan zitekeela ikasleak erakartzeko: erakusketa aretora gonbidatu, eta orubete pasatxoan gure historiaren zertzelada nagusiak eman, panel erakargarrien laguntzarekin.

Horrela, 2022ko jardunaldiak prestatzen hasi ginenean, hau nola egin pentsatu genuen. Bagenekien, eskolekin aurreko esperientziatik ikasita, alor ekonomikoak garrantzitsuak zela. Eskolei kostu ekonomikorik ez suposatzea, alegia. Aurreko edizioetan baino aurrekontu handiagoa behar genuen, beraz. Dirulaguntza bidez jardunaldiak finantzatzeko dituen udaleko kultura zinegotziarekin egon ginen gure asmoa adierazteko. Interesgarria iruditu zitzaion, eta bere oniritziarekin aurrera egin genuen. Nabarraldekoekin egon ginen, eta gure pozerako, esan ziguten erakusketa biribiltzen ari zirela, panel berrituekin.



Erabaki beharreko hurrena gonbidatuko genituen ikasleen adina zen. Batxilergokoez gogoratu ginen lehenengo, jada nagusitasuna badaukatelako. Laster baina, konturatu ginen ez dutela ikasle guztiek batxilergoko bidea hartzen. Guztiengana iritsi nahi genuenez DBH4 aukeratu genuen, derrigorrezko hezkuntzaren azken maila. Puntu hau, baina, irakasleekin kontrastatu nahi genuen.

Oñatin hiru ikastetxe ditugu: kristaua, publikoa eta Ikastola. Hiruetako DBHko arduradunekin ipini ginen harremanetan, gure asmo eta gogoia partekatzeko. Gure zorionerako, hirurek interesgarriz jo zuten ekimena. DBH4 maila ere ontzat eman zuten, eta baietz, ekimenera batuko zirela esan ziguten.

Bileratxo batean egutegia adostu genuen: gelaka etorriko ziren erakusketara, 7 gela (136 ikasle) guztira, goizez. Ordu eta erdiko bisita aurreikusi genuen, eta horrela goiz batzuetan bi gela izan ditugu, bata bestearen atzetik. Erakusketa muntatu eta desmuntatzeko egunetan ezarri genituen lehenengo bisitak, irakasleak alferreko bidaiarik ez egiteko. Egun horietan ipini genituen publikoari irekitako bi bisitak ere.

Amaieran egindako balorazioa positiboa da oso. Apenas dagoen aukerarik gure historiaren ezagutza, eta beraz, egungo egoeraren ulermena, hain era sintetizatuan jasotzeko. Gazteek horretarako aukera izateari oso baliotsu deritzogu. Eskoletatik jaso dugun erantzunak ere hurrengo urteetan egitasmoarekin jarraitzera animatzen gaitu: irakasleen laguntzarekin formazioa sistematizatzeraz.

“Oro har, ikasleak gustura aritu dira eta kasu batzuetan deigarria egin zitzaigun gelan interes handiegirik izaten ez duten ikasleek hor oso adi eta interesarekin egotea.”

Izan daitezela Oñatiko gazteak gure iraganaren jabe, etorkizuna kontzientzia politiko osoagoz bizitzeko.

Egitasmoa zure herrirako interesgarri ikusten baduzu, gustura asko partekatuko dugu gure esperientzia.

Jardunaldien leloak dioen bezala:

“geuk, zentzuz, gogoz eta ekinez”

Leitzan, 2022ko Kultur Aroa XLIV. edizioan erakusketa



Hiru asteko “Kultur Aroa” ekitaldien barruan erakusketa jarri genuen Herri Aretoan. Herritarrentzat zabalik izan zen erakusketa arratsaldeko ordutegian; horrez gain, goizez, DBHko ikasleentzat bisita gidatuak egiteko aukera baliatu genuen. Hemen balorazioa:

HABITAT ERAKUSKETAREN BALORAZIOA

Maiatzaren 24 eta 25, Herri Aretoan

Bisita egin zuten taldeak:

- DBH 2ko bi talde
- DBH 3ko hiru talde
- DBH 4ko bi talde
- BATX 1eko talde bat

Guztira: 152 ikasle

IRAKASLE ETA IKASLEEN BALORAZIOA

- Orokorrean ikasleen zein irakasleen balorazioa positiboa da. Izan ere, Euskal Herriko historiaren berri izateko aukera izan zuten ikasleek, institutuko ordutegiaren barruan ez baitugu horretarako tarterik hartzen askotan. Nabarraldetik etorritako lagun bat hizlari izateak ikasleen arreta bereganatzen lagundu zuen, ikasleek irakasleena ez den ahots bat eskertu zutelako, eta, gainera, irakasleoi aukera eman zigun lanak banatzeko eta ikasleen jarrera zaintzeko. Ikasleek gustura hartu zuten ikastetxetik ateratzea, eta egunerokotasuna apurtzen duen zerbait egitea. Beñiren azalpenak argiak izan ziren, eta aukera eman zien gehiegi luzatu gabe Euskal Herriko historia ezagutzeko. Gainera, talde bakoitzaren mailara eta beharretara egokitzen jakin zuten, denbora ere oso ondo kudeatuz.
- Beste urte batera begira, hobetu beharrekoak lirateke:
 - Talde txikiagoekin joatea komeni da, bestela arreta oso erraz galtzen dutelako.
 - Talde bakoitzarekin aretora noiz joango ginen azken momentuan itxi genuenez, talderen bat erakusketaren inguruko azalpen handiegirik gabe joan zen. Horrek azalpenak jarraitzea zaildu zion neurri baten behintzat.

